## Urteko 8. Igandea A

## 61. Salmoa

*L.a. 104 / S.a. 8*




**Jainkoa ganik dut indarra**
**Hura baitut nik Jaun bakarra.**

Nere arimak Jainkoa baitan du indarra:
Hura zait neri hel beharra.
Hura dut hura harroka eta Jaun bakarra:
Zaintzen naueno ezin lerra.

Jainko Jaunaren eskuetan dut nik geroa:
Hura iguzki, bozik noa.
Hura neretzat harroka indar gaitzekoa:
Nere geriza bai Jainkoa.

Jainkoaren gain zuek guziek utz geroa:
Hura betiko betikoa.
Hari bihotza gaur ixur nola olioa:
Gure geriza bai Jainkoa.

Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.
Tous droits propriété de l'Abbaye de Belloc